

# **EUSKARAREN HERRI HIZKEREN ATLASAREN**

## **V. LIBURUAREN AURKEZPENA**

Egun on, guzti-guztiori:

Dakizuen legez, Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako Diputazioen ekimenez sortu zen Euskaltzaindia, 1918. urtean, beraz, aurten 95 urte bete ditu euskarari dagozkionetan euskal erakundeen aholku emaile ofiziala den Euskararen Akademiak.

Sortuz geroztik, albo-alboan eduki ditu herri-erakundeak... eduki gaitu, hobeto esan. Testuinguru horretan, Bizkaiko Foru Aldundiak arian-arian lagundu du Euskaltzaindiaren egitekoa eta lan-jarduna, erabakigarria delako euskararen biziraupenerako, bai eta haren garapenerako ere. Azkenaldian laguntza hori Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hiru Foru Aldundiek eta Eusko Jaurjaritzak Euskaltzaindiarekin batera izenpetua duten programa-kontratuaren altzoan bideratu da, bai eta urtez urte egitasmo bereziak gauzatu ahal izateko bideratu dituen diru-laguntzen bidez ere. Nolanahi ere, laguntza ez da horretara mugatzen. Izan ere, Euskaltzaindiaren egoitza hau iraganean Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza izan zen. Ondorioz, Bizkaiko Foru Aldundiak euskararen erakunde gorenari utzi zion toki hau herritarrek eta herri-erakundeek Euskararen Akademiari agindutako lanak duintasunez garatzeko modua izan zezan.

Bizkaiko Foru Aldundiak euskararen ahozko aldaera desberdinak mapetan agerian emateko asmoz, Euskaltzaindiak 1983an onarturiko Euskararen Herri Hizkeren Atlas egitasmoa hastapenetik lagundu du. Inguruabar horretan, beren-beregi lagundu zituen Atlasaren inguruan 2012. urtean Euskaltzaindiak eginiko lanak, 115.000 euroko laguntza berezitu baten bidez.

Hizkuntza atlasak sasoi bateko euskal hiztunen bizimodua, bizitokia eta pentsaera azaltzeko agertokirik behinenak, testigantza bizienak dira. Halaber, garai bateko euskararen lurralde guztietako euskal hiztunen kultur ondarea berreskuratzeko eta zabaltzeko habe eragingarriak ere badira. Areago, laurogeiko hamarkadan testigantza eman zuten hiztunak gure artetik joanak direnean eta haien bizi-baldintzak eraldatu direnean, haien ikuskera lausotu denean.

Herri bat, hizkuntza-erkidego bat ez da ezer iraganik gabe, gure aurrekoen oroimenik gabe. Gure gurasoen testigantza galduz gero, iparrorratz jakinik gabeko herri bat izango ginateke. Gure aurrekoei zor diegu garena... eta garen neurrian, ondorengoei eman ahal izango diegu lekukoa, eskuz esku, ahoz aho, gure izena eta izana iraunaraziz etorkizunean.

Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara zuzendari nagusia naizen aldetik pozgarria zait, milaka grabazio ordu eta hogeita hamar urte

barnebiltzen dituen lan erraldoi honen fruitu berri bat ikustea. Zorionak egitasmo hau hezurmamitzen aritu diren... ari zareten guzti-guztiori. Euskararen testigantza bizia dugu lan honen atzealdean.

Zorionak, beraz, Euskaltzaindiari, euskararen corpusa eguneratzeko, gure hizkuntza indarberritzeko eta euskal kultura hedatzeko egiten duen lan erraldoiagatik. Euskaltzaindiaren ikurrean azaltzen den bezala: ekin eta jarrai.

Ana Castro

Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara zuzendari nagusia

2013-12-12